

KONTUAK ETA KANTUAK

60ko hamarkadaren bukaeran, "Los Beethoven" izeneko lehen musika taldea sortu zen Ermuan. Talde harek ezarri zuen hainbat gaztetan musika grina, eta honekin batera, Rolling's, Beatles eta garai hartako zenbait taldereko adorea. Hurrengo hamarkadan, Ermuan sortutako musika taldeak mordotxo bat izan ziren, eta haietako baten garretatik, "Apaches" izenekoaren garretatik hain zuzen, gaur egungo "Cañaveral" ospetsua piztu zen. Ermua eta Elgoibarko bost gaztek (beraien esanetan orain ez hain gazte). 1981ean Eibarko Jai Alain antolatutako

"Festival de Artistas"ean lehen saria irabazi zutenetik egundaino ez dira isildu. Eta taldean aldaketa

batuk izan badira ere, hor darraite jo ta ke.

Garai bateko berbe-nei utzita, orain ezkontza eta jai partikularretan jo-

da kitarra hartu eta kanpora joatea: *"Zaletasun handia behar da, baina urtero abuztuko oporretan berbenetan ibiltzea ere ez zen plana, norberak ere*

tuan jai.

Cañaveralekoek Lleida, Huesca, Soria, Burgos eta Euskalerrria ondo ezagutzen dute, batez ere Euskalerrria, eta bereziki Nafarroako bazterrak. Erronkarin hamaikatxo gau alaitu dute haien soinuek, eta hurrengo bihamunean kitarra eskuan eta "anplia" sorbaldan hartuta kalerik kale lo egin gabe ibiliak dira. *"Naparrak jatorrak dira benetan, oso jende atsegina topatu dugu hor zehar"* diote.

"Garrantzitsuen errepertorioa berriro eta entzuleen gustuetara moldatzea da, eta horretarako astero astero lan egin behar da entsaioetan" adierazi digute. Cañaveralen erre-



Taldearen hasieran, diskoteka batean.

tzen dute soilik. Astelehenetik ostiralera lantegian ari izan ondoran batzuetan gogorra egiten omen

oporak behar ditu" esaten digute. Horrexegatik, orain ezkontzetan bakarrik jotzen dute, eta abuz-



ELEKTRIZISTA

José Angel Ziarsolo Izaguirre

Izelaieta kalea, 4
☎ 17 29 38 - Merkatuan, 17 47 30

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11



TXINDURRI TALDEA

Tokian tokiko



Oraingo Cañaveral-ek ezkontzetan jotzen du batipat.

pertorioa 140 kantakoa da gutxi gora behera; saltsa, rancherak, pasodobleak eta "modernoak", noski." Baina batez ere, jendeak eskatzen duena lehengo kantak dira. Duela 20 urte jotzen zena orain berriz modan jarri da".


Diruaz hitzegitera-koan azkar diote: "Dirua bai, egiten da, ez bizi izateko beste, baina laguntzeko bai. Hori bai, aste-buru guztiak 'pringatu' egin behar; eta asteen zehar lanetik irten ondoren entsaioetara, eta familia

gutxiago ikusi... dirua bai, baina nekea ere bai". Kontatzen digutenez, normalean urte bat edo biren aurrerapenarekin badituzte jai egun guztiak beteta. Adibidez, iazko udan bazekiten aurtengo azaroan non eta noiz jo. Hain da

taldearen ospea..., gainera oso ondo konpontzen dute elkar, eta hori abantaila handia da. "Badakizue, Cañaveral taldea kontratatu nahi baduzue deitu azkar 17 24 687 telefono-ra" abisatzen dute. Jardunaren indarrez edo, taldeek eta hauek jotzen duten jantokiek bat egiten dute tandem bat osatuz; horrela menuarekin batera taldearen musika ere eskaintzen da.

Inoiz ez dute arazo larririk izan, eta bai ordea barre egin eta pozez gogoratzeko uneak; horrela, prozesioak lagunduz Arantzen, azkenengo hilargi eklipsea Sorian, Erronkari eta Isabako kalejirak, kanposantuko harresiaren ondoko berbenak... ehundaka kontu, ehundaka kantua.

Mikel Yarza



ARRAINDEGIA
eta
ITSASKIA
DOMINGUEZ

Eibarko Merkatu Plaza
Tfnoa: 11 80 38
Tlf. partikularra: 11 77 25
Ermuko Merkatu Plaza
Tfnoa: 17 03 38
Tlf. partikularra: 17 02 84

KEZKA
LORATEGIA

VI Centenario, 11
☎ (943) 17 15 64 • ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak,
musika aparatoak...
prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANOA
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA